

# San Agustin Kultur Gunea **DURANGO**

arte eszenikoen programazioa  
programación artes escénicas

**IRAILA  
ABENDUA  
SEPTIEMBRE  
DICIEMBRE**

2026



## Etxeko arauak

Gogoratu zuzeneko edozein emanaldi bakana eta errepikaezina da, eta gure arreta osoa merezi du. Horregatik eskatzen dizugu:

- **Garaiz iristea.** Konpainiak kontrakoa baimentzen ez duen bitartean emanaldia hasita badago ezin izango da aretora sartu. Eta ez da bermatuko txartelean markatutako eserlekuan esertzea.
- **Debekatuta dago argazkiak, filmazioak edota grabaketak egitea.** Konpainiaren eta aretoko arduradunen baimenik barik.
- **Mugikorrik ez erabili.** Utz ezazu telefona bakean. Bibrazioa kendu, eta gogoan izan albokoak eta antzezleak molestatzeaz gain, mezuak irakurtzen dituzun bitartean telefonoak aurpegia argizatzen dizula, denon begi-bistan geldituko zara.
- **Umetxoentzako gurditxo eta aulkia**k, sarreran hobeto.
- **Zaindu dezagun denona dena**, areto barruan ezin da ez jan, ez edan.
- **Aretoak gurpildun aulkientzako sarrera eta guneak ditu**, horietakoren bat behar izanez gero, jar zaitez harremanetan:  
Tfn. **94 603 00 21** Emaila: **sanagustin@durango.eus**

## Normas de la casa

Recuerda, cada espectáculo en directo es un hecho único e irrepetible, merece toda tu atención.

Por eso pedimos:

- **Puntualidad.** Una vez comenzado el espectáculo sólo se permite la entrada si la compañía ha dado su conformidad. Y no se garantiza que puedan ocupar las localidades que tengan.
- **Prohibido fotografiar, filmar o grabar** el espectáculo sin autorización de los/as responsables de sala y los artistas.
- **No utilizar el móvil.** Dale un respiro a tu móvil, anula las vibraciones y recuerda que mientras miras los mensajes, el dispositivo ilumina tu cara y además de molestar a los de alrededor y artistas, todo el mundo te ve.
- **Las sillas y coches infantiles** mejor dejarlos en el Hall.
- Por el buen mantenimiento de la sala pública **no se pueden consumir comida ni bebida en el interior.**
- El teatro dispone de instalaciones y accesos **adaptados para sillas de ruedas.** Para garantizar esas localidades ponte en contacto: Tel: **94 603 00 21** Mail: **sanagustín@durango.eus**

## aurkibidea / índice

|                  |                                                                              |           |
|------------------|------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| IRAILAK 20       | <b>ALAI FAMILIAN</b><br>Lasala Danza                                         | <b>4</b>  |
| IRAILAK 26       | <b>52 HERCIOS</b><br>Ados Teatroa                                            | <b>6</b>  |
| URRIAK 3         | <b>NOR NAIZEN BANEKI</b><br>Artedrama & Axut                                 | <b>8</b>  |
| URRIAK 12 - 13   | <b>SOMOS MONOS</b><br>Angel Martin                                           | <b>10</b> |
| URRIAK 25        | <b>HASTA EL ÚLTIMO BAILE</b><br>Cía Eva Guerrero                             | <b>12</b> |
| URRIAK 29        | <b>ZANBUILA</b><br>Lolak kolektiboa                                          | <b>14</b> |
| AZAROAK 1        | <b>BIDUTZI</b><br>Benetan Be Teatroa                                         | <b>16</b> |
| AZAROAK 7        | <b>CANCÚN</b><br>Banarte Antzerki Taldea                                     | <b>18</b> |
| AZAROAK 8        | <b>DOLMEN BOSKOTEA</b><br>XXXVII Musika Hamabostaldia                        | <b>20</b> |
| AZAROAK 14       | <b>ANTON GOMEZ &amp; MICHEL REYNOSO</b><br>XXXVII Musika Hamabostaldia       | <b>22</b> |
| AZAROAK 15       | <b>EL VENTRILOCUO</b><br>Jaime Figueroa                                      | <b>24</b> |
| AZAROAK 22       | <b>AUPA STRINGS</b><br>XXXVII Musika Hamabostaldia                           | <b>26</b> |
| AZAROAK 27       | <b>DIDO &amp; AENEAS</b><br>All' Antica Musika elkarte                       | <b>28</b> |
| AZAROAK 29       | <b>DYSPHORIA</b><br>Histrion Teatro                                          | <b>30</b> |
| ABENDUAK 5       | <b>GABRIEL ARESTI MUG(H)ARRI</b><br>Joxan Goikoetxea & Euskamerata           | <b>32</b> |
| ABENDUAK 6 - 8   | <b>DURANGOKO AZOKA. SZENATOKIA</b>                                           | <b>34</b> |
| ABENDUAK 12      | <b>SIDARI</b><br>Xake Produksioak                                            | <b>36</b> |
| ABENDUAK 13      | <b>JUDITH JAUREGUI Y ANA MARÍA VALDERRAMA</b><br>XXXVII Musika Hamabostaldia | <b>38</b> |
| ABENDUAK 27 - 29 | <b>MALUTA XII</b><br>Zirko gala                                              | <b>40</b> |

# ALAI FAMILIAN

## Lasala Dantza

🌐 [www.lasala-lasala.com](http://www.lasala-lasala.com)

📷 @lasala.lasala

☀️ 4 urtetik aurrera

Idea eta zuzendaritza artistikoa / Idea y dirección artística:

**Judith Argomaniz**

Koreografia / Coreografía:

**Judith Argomaniz, dantzarien kolaborazioarekin /**

**Judith Argomaniz en colaboración con las intérpretes**

Interpreteak / Intérpretes:

**Garazi Etxaburu, Miren Lizeaga, Leire Otamendi**

Dramaturgia / Dramatúrgia:

**Judith Argomaniz, Hodei Arrastoa, Garazi Etxaburu,**

**Miren Lizeaga, Leire Otamendi**

Testua / Texto:

**Hodei Arrastoa**

Musika sorkuntza / Creación musical:

**Fernando Epelde**

Alaik sei urte ditu eta bere amona eta txakurrarekin bizi da. Alairen familia ez da bere lagunena bezalakoa eta horrek desberdin sentiarazten du, baina gau batean ametsen munduan murgildu eta animalia mordo bat eta haien familia motak ezagutuko ditu.

Nolakoa da, ba, familia normal bat?

**LASALA**, Judith Argomaniz-ek zuzendutako dantza konpainia, 2013az geroztik dago martxan, eta bere lanaren kalitateagatik aitortua izan da bai Euskadin, bai Estatu mailan, baita nazioartean ere.

Alai tiene seis años y vive con su abuela y su perro. La familia de Alai no es como la de sus amig@s y eso a veces hace que se sienta diferente, pero una noche se sumerge en el mundo de los sueños y conoce a muchos animales y los distintos tipos de familias que tienen.

Y es que, ¿cómo es una familia normal?

**LASALA**, compañía de danza dirigida por Judith Argomaniz, desarrolla su actividad desde 2013, siendo reconocida por la calidad de su trabajo tanto en Euskadi como en el conjunto del Estado español y en el ámbito internacional.

20

IRAILA/SEPTIEMBRE  
(IGANDEA/DOMINGO)

18:00

TESTU BARIK  
SIN TEXTO

45 min

4 € (Bazkideak 3 €)



# 52 HERCIOS

## Ados Teatroa

 [www.adosteatroa.com](http://www.adosteatroa.com)  
 @adosteatroa

Egileak / Autoría:

Garbi Losada, J. A.

Antzezleak / Intérpretes:

Joseba Apaolaza, Martxelo Rubio, Ainhoa

Aierbe/ Dorleta Urretabizkaia, Amaia Irazabal,

Kimetz Etxabe

Zuzendaria / Dirección:

Garbi Losada

Zuzendari Laguntzailea / Ayudante de dirección:

Dorleta Urretabizkaia

Izenburuak azken 35 urteotan Ozeano Bareko hainbat tokitan entzundako soinu bitxi baten frekuentziari egiten dio erreferentzia, balea urdin baten kantua antzekoa da. Baina balea urdinak 10 eta 39 hertzio arteko frekuentzian komunikatzen dira, eta “balea bakarti” honen ahotsa, 52 hertziotakoa, espeziearen entzumen-mugatik kanpo geratzen da.

Dirudienez, “*52 hertzioko balea*” jaiotzez gorra izan daiteke, eta horregatik ez zuen inoiz ikasi bere kantuak frekuentzia egokian emititzen.

Ez da beste balearik bere deiari erantzuteko gai. *52 hertziotako balea bakartia* horren metafora bihurtzen da, gizarte-isolamenduaren sinbolo gisa, eta nahigabeko bakardadea sofritzen dutenen edota jasan dutenen inguruko ikuspegi poliedrikoa eskaintzen du, elkar gurutzatzen diren bizipenak ehunduz.

El título de la obra hace referencia a la frecuencia de un extraño sonido registrado en los últimos 35 años en distintos lugares del Pacífico, similar al canto de una ballena azul. Pero las ballenas azules se comunican en frecuencias que van de los 10 a los 39 hercios, por lo que la voz de esta extraña ballena solitaria, vibrando a 52 hercios, queda fuera del umbral auditivo de la especie. Ninguna otra ballena ha podido jamás escuchar su llamada.

Se supone que la *Ballena de los 52 hercios* o *Whalien 52* puede ser sorda de nacimiento, y que por eso nunca aprendió a emitir su canto en la frecuencia correcta.

La obra utiliza la metáfora de esa *ballena solitaria*, convertida en un símbolo del aislamiento social, para hilvanar una mirada poliédrica sobre personas que están sufriendo o han padecido momentos de soledad no deseada.

**26**

**IRAILA/SEPTIEMBRE**  
(LARUNBATA/SÁBADO)

**19:00**

**CASTELLANO**

70 min

12 € (Bazkideak 9 €)



# NOR NAIZEN BANEKI

## Artedrama & Axut! Teatroa

🌐 [www.artedrama.com](http://www.artedrama.com)  
[www.axut.eus](http://www.axut.eus)  
📷 @artedrama  
@axut.kolektiboa

Idazleak / Autoría:

**Harkaitz Cano, Ximun Fuchs**

Zuzendaria / Dirección:

**Ximun Fuchs**

Antzezleak / Intérpretes:

**Ramon Agirre, Garoa Bugallo, Maialen  
Diaz, Aline Etxeberri, Manex Fuchs, Idoia  
Tapia, Oier Zuñiga**

Zuzendari laguntzailea, Koreografoa /

Ayudante de dirección, Coreografía:

**Philippe Ducou**

Nor naizen baneki... Zuk badakizu?  
Jakin nahi zenuke? Bada jakin ondoren  
damutu denik? Angelu guztietatik  
nahi zenuke zeure burua ikusi, ala  
behar da angelu itsu bat? Ezagutu  
daiteke norbere burua isolatuki,  
norbere ingurunea ezagutu gabe? Nola  
jakin, zinez, zarena zarela? Gurasoen  
ispiluan? Seme-alabenean? Aztarnei  
esker?

**Nola jakin nor zaren, ingurune aldakor  
batean etengabe aldatzen dena  
bazara?**

Ez ote da antzerkia barne  
indusketarako tresnarik onena?

Ojalá supiera quién soy... ¿Lo sabes  
tú? ¿Te gustaría saberlo? ¿No temes  
arrepentirte después? ¿Es saludable  
observarnos desde todos los ángulos, o  
hace falta un punto ciego? ¿Es posible  
reconocerse dándole la espalda al  
entorno? ¿Cómo saber que eres de  
veras quien dices ser? ¿En el reflejo  
de tus padres? ¿En el de tus hijos?  
¿Leyendo las huellas que vas dejando  
atrás?

**¿Cómo saber quién eres, si vas  
mutando sin cesar en un entorno  
cambiante?**

¿Y si fuese el teatro la mejor forma  
de desencadenar una arqueología  
introspectiva?

**3** **URRIA/OCTUBRE**  
(LARUNBATA/SÁBADO)

**19:00**

**EUSKARAZ**  
120 min  
12 € (Bazkideak 9 €)



# SOMOS MONOS

## Ángel Martín

*Bakarrizketa honek galdera handi bat botako die ikusleei:  
garuna erabiltzeari utzi al diogu?*

*Monólogo que enfrenta al público a una gran pregunta:  
¿hemos dejado de usar el cerebro?*

Denok ezagutzen dugun errealitatea abiapuntutzat hartuta, —armairutik atera dugun hori gordetzeko hozkailua irekitzea, arrautza bat frijitzeko tutorial baten mende egotea edo Interneten erruz, iritzia emateko beldurra izatea—, **Martínek** umorez ohartaraziko digu "*garuneko motorra itzali dugula*". **Somos Monos** ikuskizunean ikusleei beren buruaz barre egiteko gonbita egingo zaie; norberaren kontraesanez konturatzeko eta teknologiak, bizi-erritmoak eta sare sozialek pentsatzeko, sentitzeko eta komunikatzeko modua aldatu dutela ikusarazteko.

"Gizakiak garunaren % 10 bakarrik erabiltzen du" esaldi ospetsutik abiatuta, **Martínek** baieztapen hori desmuntatuko du barrez lehertzeko moduko keinu batekin: gaur egun, askok % 0an ere erabiltzen dutela ziurtatzen du. Baina barreaz gain, hausnarketarako tarteak ere proposatuko du **Martínek**: "*garunaren berraktibazioa*" bilatu nahi baitu, horretarako suarekin jolastu behar badugu ere.

Inspirado en una realidad que todos vivimos —abrir la nevera para guardar algo que sacamos del armario, depender de un tutorial para freír un huevo o tener miedo de opinar por culpa de internet—, **Martín** lanza una advertencia en clave de humor: "*hemos apagado el motor del cerebro*".

**Somos Monos** es un espectáculo en el que se invita al público a reírse de sí mismo; de las contradicciones propias y de cómo la tecnología, el ritmo de vida y las redes sociales están transformando la forma de pensar, sentir y comunicar.

Partiendo de la célebre frase "*El ser humano sólo utiliza un 10% del cerebro*", **Martín** desmonta esa afirmación. Lo hace con un giro desternillante: en la actualidad, asegura que muchos lo utilizan incluso al 0%. Y aunque la risa está garantizada, también lo está la reflexión.

**Martín** propone una "*reactivación del cerebro*", aunque para lograrlo haya que pisar más de un charco.

12  
13

**URRIA/OCTUBRE**  
(ASTELEHENA / LUNES)

**URRIA/OCTUBRE**  
(ASTEARTEA / MARTES)

**19:00**

**CASTELLANO**

90 min

18 € (Bazkideak 13,50 €)



*2 saioak grabatu egingo  
dira telebistaz edo/eta  
plataformatan botatzeko*

*Ambas sesiones se  
grabarán para posibles  
emisiones en tv y/o  
plataformas*



# HASTA EL ÚLTIMO BAILE

## Cía Eva Guerrero

 [www.dooscolectivo.es/evaguerrero](http://www.dooscolectivo.es/evaguerrero)  
 @evaguerrero  
 @dooscolectivo

Zuzendaritza, koreografia eta argazkiak /  
Dirección, coreografía y fotos:

**Eva Guerrero**

Interpretazioa eta koreografia /  
Interpretación y coreografía:

**Aiala Etxegarai**

Konposizio musikala / Composición  
musical e interpretación:

**Yolanda Bustillo eta Amaia  
Santamaría**

Testuak / Textos:

**Eva Guerrero eta Yolanda Bustillo**

*"Hasta el último baile"* lanak denboraren joanaz, gorputzaren eraldaketaz, ausentziez eta oroitzapenez hitz egiten du, musika, antzerkia eta dantzaren bidez. Emakumeen ikuspuntutik sortutako fikziozko multibiografia poetikoa da.

Dantza eta musika protagonista direla, oroitzapenekin osatutako istorio desordenatu bat kontatzen du, non dena nahasten den, zahartzaroari, gorputzari, eta gorputza eraldatzen duten aztarna horiei guztiei buruz hausnartzeko.

*"Hasta el último baile"* topaketa bat da eta, aldi berean, agur bat; gorputz asko dira gorputz bakar batean, gure orainaldia eraldatzen duten beste pertsona batzuen ahotsak dira. Hona ekarri gaituztenen memoria da.

*"Hasta el último baile"* es un espectáculo de danza-teatro con música en directo que habla del paso del tiempo, la transformación del cuerpo, las ausencias y los recuerdos. Es una multi-biografía ficticia, poética, en clave femenina.

Con el baile y la música como protagonistas, contamos una historia desordenada hecha a partir de recuerdos, donde todo se mezcla, para reflexionar sobre la vejez, el cuerpo, y todas esas huellas que se van quedando en él y lo van transformando.

*"Hasta el último baile"* es un encuentro y a la vez una despedida, son muchos cuerpos en un único cuerpo, son las voces de otras personas que transforman nuestro ahora. Es la memoria de quienes nos han traído hasta aquí.

**25**

**URRIA/OCTUBRE**  
(IGANDEA/DOMINGO)

**19:00**

**CASTELLANO**

50 min

10 € (Bazkideak 7,50 €)



# ZANBUILA

## Lolak Kolektiboa

📷 @lolak.kolektiboa

Testua eta sorkuntza / Texto y creación:

**Lolak kolektiboa**

Antzezleak / Intérpretes:

**Irene Hernando, Amaia Ruiz de Galarreta, Esti Curiel**

Bidelaguntza Artistikoa /

Acompañamiento artístico:

**Dejabu konpainia.**

Kanpo begirada / Mirada externa:

**Iraia Elias**

Lolak kolektiboaren **Zanbuila** antzezlanak ikusten eta entzuten ez diren emakumeen aurpegiak eta ahotsak azaleratu nahi ditu ahizpatasunetik abiatuz gaur egungo zein beste belaunaldi batzuetako emakumeen bizitzetara salto eginez.

Itziar, 39 urteko erizaina, krisi existentzialean murgilduta dago, eta azken momentuko gertakari batek sentipen hori areagotuko du. Lanari esker ezagutuko duen beste belaunaldi bateko emakume batek eta haren alabak gauzak birplanteatzera eramango dute. Horrela, premiazko hausnarketa batean murgilduko da, itsasora zanbuila eginez. Kostaldeko hainbat emakumerekin egindako elkarrizketei esker, euren historiak kontatzea beharrezkoa dela sentitu du Lolak kolektiboak.

La obra **Zanbuila** de Lolak kolektiboa tiene por objetivo sacar a la luz caras y voces de mujeres que no se ven ni se escuchan; saltar a las vidas de las mujeres, tanto de hoy como de otras generaciones, poniendo la hermandad en el centro.

Itziar, una enfermera de 39 años, está sumida en una crisis existencial, y un incidente en el último momento acentuará esa sensación.

Una mujer de otra generación a la que conocerá a raíz del trabajo, y su hija, le llevarán a replantearse las cosas. Así, se sumergirá en una reflexión de urgencia, dando zancadas al mar. Las entrevistas con varias mujeres costeras nos han hecho sentir que es necesario contar sus historias.

29


URRIA/OCTUBRE  
(OSTEGUNA/JUEVES)

19:00

EUSKARAZ

70 min

10 € (Bazkideak 7,50 €)



# BIDUTZI

## Benetan Be Teatroa

🌐 [www.benetanbe.com](http://www.benetanbe.com)  
📷 @benetanbe

☀️ 3 urtetik aurrera /  
A partir de 3 años

Testua eta zuzendaritza artistikoa / Texto y dirección artística:

Patricia Urrutia

Antzezleak / Intérpretes:

Patricia Urrutia, Jon Zumelaga, Juanma Rodriguez

Zuzendaritza / Dirección:

Elena Olivieri

Musika / Música:

Josu Aginaga

Txotxongiloak / Marionetas:

Maia Skovush

***Barregarria, hunkigarria eta optimista... Ikaragarria izango da!***  
***Divertida, conmovedora y optimista... ¡Va a ser impresionante!***

Inauteri gauean munstroek eta mozorroek kaleak hartzen dituzte festa giroan. Hain pozik dabil Bidutzi anabasan eta hain da tentagarria ez sartzeko esaten duen kartel hori... **“Ez sartu! Batez ere munstro edo kokomarroa bazara”** Noski, kaiola barruan sartuko da. Eskerrak Godofredok dena ikusi duen. Edo Ainara da, Godofredoz mozorrotuta, dena ikusi duena? Horrek ez du axola orain. Orain kaiolatik irten beharra dago ehiztaria eta laguntzailea bueltatu baino lehen.

Lortuko dute Ainarak eta Bidutzik ihes egitea? Lortuko du Bidutzi txikiak hamabiak jo aurretik berak bakarrik norbait ikaratzea? Munstro eta mozorro, elkar lagunduko dute urteko gaurik zoroenean eta eurekin batera eramango dituzte ikusleak ikaratik algarara.

Es la noche de Carnaval. Monstruos y disfraces toman las calles en plena fiesta. Bidutzi está tan contento disfrutando del caos y esa señal de prohibido el paso es tan tentadora: **«¡No pasar! ¡Sobre todo si eres un monstruo!»** No lo puede evitar. Entra en la jaula y queda atrapado. Menos mal que Godofredo pasaba por ahí y lo ha visto todo. ¿O es Ainara, disfrazada de Godofredo, quien lo ha visto todo? ¿Acaso importa? Ahora lo que importa es escapar de la jaula antes de que regresen el Cazador y su ayudante.

¿Conseguirán Ainara y Bidutzi escapar? ¿Conseguirá el pequeño Bidutzi asustar a alguien él solito antes de medianoche? Monstruos y disfraces se ayudarán mutuamente en la noche más loca del año llevando en cada paso a los espectadores del miedo a la risa.

**1**

**AZAROA/NOVIEMBRE**  
(IGANDEA / DOMINGO)

**18:00**

**EUSKARAZ**

55 min

4 € (Bazkideak 3 €)



# CANCÚN

## Banarte Antzerki Taldea

 [www.banarte.net](http://www.banarte.net)  
 [@banarte\\_antzerki\\_taldea](https://www.instagram.com/banarte_antzerki_taldea)

Antzezleak / Intérpretes:  
**Dolma Romera, Rafa Herce, María Otxandiano, Txelu Fernández**  
Zuzendaritza / Dirección:  
**Eduardo Pombar**

**Cancún -Banarte Antzerki Taldeak** berera ekarritako lana- Jordi Galceranen endredo eta errealtate alternatiboei buruzko komedia da. Umore beltzaren, zoriaren eta fisika kuantikoaren bidez, ironiaz diseccionatzen du adin ertainekoek adinarekin eta hari lotutako itxura aldaketarekin izaten duten krisialdia. Aurreikus ezin daitezkeen jirabiren artean antzezan adimentsu honek galdera zuzen bat botako dio ikusleari: “zure iragana aldatu ahal izango bazenu, hala egingo zenuke?”.

Aspaldiko lagunak diren senar-emazte bikote bi Cancungo hondartza zoragarrietan oporretan daude. Txanpan kopen, barreen eta oroitzapenen artean, Remeri hogeita bost urtez ondo gordetako sekretu batek ihes egiten dio: Vicenteren kotxeko giltzak ezkutatu zituen, Laura etxera eraman ez zezan; keinu inozente horrek, baina, lau lagunak patua betiko aldatuko du.

**Cancún** es una comedia de enredos y realidades alternativas de Jordi Galceran, versionada por **Banarte Antzerki Taldea**.

A través del humor negro, el azar y la física cuántica, la obra disecciona con ironía la crisis de la mediana edad y las apariencias. Una pieza inteligente y de giros imprevisibles que nos pregunta: si pudieras cambiar tu pasado, ¿elegirías diferente?

Dos matrimonios amigos de toda la vida disfrutan de sus vacaciones en las paradisíacas playas de Cancún. Entre copas de champán, risas y recuerdos, a Reme se le escapa un secreto bien guardado durante veinticinco años: escondió las llaves del coche de Vicente para que no llevara a Laura a casa, lo que forzó el destino de los cuatro.

**7** **AZAROA/NOVIEMBRE**  
(LARUNBATA/SÁBADO)

**19:00**

**CASTELLANO**  
70 min  
8 € (Bazkideak 6 €)



# DOLMEN ENSEMBLEA

## Haize boskotea

**Bartolomé Ertzillak**  
**antolatutako XXXVII**  
**Musika hamabostaldia**

*XXXVII Quincena musical*  
*organizada por la Escuela*  
*de Música Bartolomé Ertzilla*

📷 @dolmenensemble

Zeharkako txirula / Flauta travesera:

**Ibón Ariznabarreta**

Oboea / Oboe:

**Mikel Albistur**

Klarineta / Clarinete:

**Eider García de la Torre**

Fagota / Fagot:

**Aitor Gullon**

Tronpa / Tromp:

**Asier Urreta**

Haize boskote gazte honek aurkeztuko digun erreperorioak generoaren aberastasuna eta modernitatea balioesten ditu, lan klasikoen arteko obrarik adierazgarrienetako batzuk genero honen bilakaera eta bizitasuna islatzen duten sorkuntza garaikideekin konbinatuz.

Bereziki, euskal musikagileen lanak lehenetsi dira, Euskal Herriko kultur ondarearen adierazpen baliotsua baitira.

Gure ondare artistikoaren zabalkundean eta proiektzioan laguntzeko asmoz sortu zen, **ganbera-musikaren** nazioarteko erreperorioan txertatuz eta tradizioaren eta berrikuntzaren arteko elkarrizketa bultzatuz.

El joven talento que integra este quinteto de viento presenta un repertorio concebido para poner en valor la riqueza y versatilidad de esta formación camerística, combinando algunas de las obras más representativas del repertorio clásico con creaciones contemporáneas que reflejan la evolución y vitalidad de este género.

De manera especial, el programa concede un lugar destacado a la **música de cámara** de compositores vascos, cuyas obras constituyen una valiosa expresión del patrimonio cultural de Euskal Herria. Su inclusión responde al propósito de contribuir a la difusión y proyección de este legado artístico, incorporándolo al repertorio internacional de la música de cámara y favoreciendo el diálogo entre tradición e innovación.

8

**AZAROA/NOVIEMBRE**  
(IGANDEA/DOMINGO)

**19:00**

60 min  
8 € (6€ Bazkideentzat  
eta Bartolome  
Ertzillako ikasleentzat  
/ para socios/as  
y alumnado de  
Bartolomé Ertzilla)



# ANTÓN GÓMEZ & MICHEL REYNOSO

## Dúo Saxofón-Piano / Saxo-Piano duoa

**Bartolomé Ertzillak**

**antolatutako XXXVII**

**Musika hamabostaldia**

*XXXVII Quincena musical*

*organizada por la Escuela*

*de Música Bartolomé Ertzilla*

Saxofoia / Saxofón:

**Antón Gómez**

Pianoa / Piano:

**Michel Reynoso**

Dantzaria / Bailarina:

**Nagore Tamayo**

**Michel Reynoso** (pianoa) eta **Antón Gómez** (saxofoia) musikarien arteko topaketatik sortu da ganbera-proiektu hau. Obra honek bi ibilbide musikalen heldutasuna eta Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan izandako loturatik sortutako konplizitatea uztartzen ditu.

Errepertorio klasikotik sorkuntza garaikideraino, programak hainbat estilo eta garaitan barna murgiltzea proposatzen du, saxofoiaren eta pianoaren tinbre-aberastasuna eta adierazpen-aukerak nabarmenduz.

Erreferentziazko obrak eta egungo konposizioak uztartuko dira tradizioa eta berrikuntza lotzen dituen emanaldi honetan.

**Dantzari** baten laguntzarekin mugimenduaren eta soinuaren arteko elkarriketa sortuko da zuzeneko esperientzia aparta eskainiz.

El encuentro entre **Michel Reynoso** (piano) y el durangués **Antón Gómez** (saxofón) da lugar a un proyecto camerístico que combina la madurez de dos trayectorias musicales con la complicidad nacida de su vínculo en el Conservatorio Superior de Música de Navarra.

El programa propone un recorrido por diferentes estilos y épocas, desde el repertorio clásico hasta la creación contemporánea, poniendo de relieve la riqueza tímbrica y las posibilidades expresivas del saxofón y el piano.

Obras de referencia conviven con composiciones actuales en un diálogo que une tradición y renovación.

Como elemento singular de esta propuesta, el concierto incorpora la participación de una **bailarina**, cuya interpretación establece un diálogo con la música en directo.

# 14

**AZAROA/NOVIEMBRE**  
(LARUNBATA/SÁBADO)

## 19:00

60 min  
10 € (7,50€  
Bazkideentzat eta  
Bartolome Ertzillako  
ikasleentzat / para  
socios/as y alumnado  
de Bartolomé Ertzilla)



# EL VENTRÍLOCUO

## Jaime Figueroa

*Redescenak gomendatutako  
ikuskizuna*

*Espectáculo recomendado  
por Redescena*

📷 @figueroa\_and\_company

Zuzendaritza eta interpretazioa /  
Dirección e interpretación:

**Jaime Figueroa**

Biolina / Violín:

**Violeta Veinte**

Pianoa / Piano:

**Gonzalo Garcia Baz**

Testua / Texto:

**Rafael Boeta & Jaime Figueroa**

Jaime Figueroa, "El Ventrílocuo" sabeliztuna, beti bakarrik iristen da, bakarrik aurkezten du bere burua, bakarrik antzezten du eta, nola ez, bakarrik hitz egiten du. Hala ere, bera eszenatokian dagoenean, izaki eta gauza mordo batek hartzen dute parte, baita huskeriatxoak diruditenek ere: paper zati batek, arkakuso-zirku batek edo gopela abesten duen sai arre batek.

Denon gogoan daude antzinako telebistako sabeliztunek eragiten zizkiguten barreak, baina jada desagertu dira. **Jaime Figueroa** teknika zahar hau eguneratu du egungo gustu eta sentikortasunera hurbiltzeko, berezko senik galdu gabe eta inoizko zorroztasun tekniko finenarekin.

Eta hori guztia hain berea duen umore finak ondua. Ikusmena, baina, bereziki entzumena kitzikatuko dituen ikuskizuna zuzeneko abesti, piano eta biolinez lagundua.

Jaime Figueroa, "El Ventrílocuo", siempre llega solo, se presenta solo, actúa solo y, desde luego, habla solo. Sin embargo, cuando él está en escena, una multitud de seres nos acompaña y las cosas, hasta las más insignificantes, toman la palabra: un trozo de papel, un verdadero circo de pulgas o un buitre leonado que canta góspel.

Todos recordamos a los ventrílocuos que con sus muñecos nos hicieron reír en televisión, pero desaparecieron.

**Jaime Figueroa** se ha propuesto actualizar esta técnica ancestral para acercarla al gusto y a la sensibilidad contemporáneas, sin renunciar por ello al rigor y la maestría, con una precisión nunca antes vista.

Y todo ello aderezado con su peculiar sentido del humor. Un espectáculo para la vista, pero sobre todo para los oídos, lleno de canciones originales y con música en directo de piano y violín.

15

**AZAROA/NOVIEMBRE**  
(IGANDEA/DOMINGO)

**19:00**

CASTELLANO

80 min

12 € (Bazkideak 9 €)

*Publiko gazte – helduarentzat*

*Espectáculo para público joven / adulto*



# PLAYLIST

## Aupa Strings

**Bartolomé Ertzillak**  
**antolatutako XXXVII**  
**Musika hamabostaldia**

*XXXVII Quincena musical*  
*organizada por la Escuela*  
*de Música Bartolomé Ertzilla*

☀ 6 urtetik aurrera / A partir de 6 años

Biolina eta dramaturgia / violín y dramaturgia  
**Asier Suberbiola**

Biolak / violas

**Joana Gumí, Leonor Falcón**

Biolontxelo / violonchelo

**Mª Rosa Pons**

Dramaturgia

**Javier Ariza**

Argitazpena eta soinua / iluminación y sonido

**Iván Rubio**

Familia osoari zuzendutako kontzertu honek proposamen berezi bat ezagutzera gonbidatzen zaituzte: biolinak, biolak eta biolontxeloak elkarriketa bitxia sortuko dute **musika klasikoarekin, rockarekin, funkarekin, jazzarekin eta reggearekin**. Jolasa, antzerkia, umorea eta probokazioa baturik, ikuskizun hurbil, parte-hartzaile eta ustekabez betea biziko dugu.

Idea honekin, **Aupa String Taldeak** kontzertu tradizionalaren kontzeptua goitik behera berrasmatuko du. Antzerki, dantza eta clown elementuak gehituz, musika eta eszena modu naturalean uztartzen dituen ikuskizuna sortuko dute.

Adiskidetasun sendo batek lotuta, hiru musikariek beren nortasuna eta eraginak ekarriko dituzte hizkuntza komun bat eraikitzeko. Bertan, estiloak elkarrekin nahastu eta aberastuko dira, edozein etiketa gaindituz. Publiko guztia musika ikuspegi ireki, sortzaile eta dibertigarri batetik gozatzen gonbidatuta dago.

Dirigido a toda la familia, este concierto invita a descubrir una propuesta en la que el violín, la viola y el violonchelo dialogan con la **música clásica, el rock, el funk, el jazz y el reggae**. El juego, el teatro, el humor y la provocación se suman a la experiencia para ofrecer un espectáculo cercano, participativo y lleno de sorpresas.

Con esta propuesta, **Aupa String Taldea** reinventa el concepto tradicional de concierto incorporando elementos del teatro, la danza y el clown, creando un espectáculo en el que la música y la escena se complementan de forma natural.

Unidos por una sólida amistad, los tres músicos aportan su personalidad y sus influencias para construir un lenguaje común en el que los estilos se entrelazan, se enriquecen mutuamente y trascienden cualquier etiqueta, invitando al público a disfrutar de la música desde una perspectiva abierta, creativa y divertida.

22

**AZAROA/NOVIEMBRE**  
(IGANDEA/DOMINGO)

**18:00**

**EUSKARAZ**

45 min

4 € (3€ Bazkideentzat  
eta Bartolome Ertzillako  
ikasleentzat / para  
socios/as y alumnado de  
Bartolomé Ertzilla)



# **DIDO & AENEAS**

## **All'Antica Musika elkarte**

 [www.allantica.org](http://www.allantica.org)  
 [@allanticamusika](https://www.instagram.com/allanticamusika)

Zuzendari musikala / director musical:

**Moisés Maroto**

Abeslari lirikoak / Cantantes líricos:

**Ainhoa Izaguirre, Iñigo Fernandez, Susana Zabaco, Laiene Alcalá, Haizea Lorenzo, Oier Lobera, Marta de Prado, Ibone Sardón, Arrate Galean, Elena Díez**

Musikariak / Músicos

**Silvia Cantatore, Mariana Blanco, Rubén Ramos, Diego Parra, Izaskun Payas, Iñigo Martínez, Nora López, Mirari Fox, David Sáez, Teresa Merino, Daniel Garay, Dan Alberganti, Elvira Puyol, Adrian Santamaría**

Bilbao Kamerata Koroa – Zuzendaria / Directora:

**Irma Rutkauskaite Eguiluz**

**Henry Purcell**en maisulana eta ingelesez idatzitako lehen opera handia izateaz gain, munduko opera ospetsuenetako bat da. 1689an estreinatua, Kartagoko Dido erreginaren eta Eneas heroi troiarraren arteko amodio sutsu eta tragikoa kontatzen du, azken honek bere patua betetzeko erregina abandonatu behar izan baitzuen: Erroma sortzeko, alegia.

Barrokoko altxor bat da, oso baliabide gutxiarekin gizakiaren irudikatzea lortzen duena.

Es una de las óperas más famosas del mundo además de ser la obra maestra absoluta de **Henry Purcell** y la primera gran ópera en lengua inglesa.

Estrenada en 1689, narra el apasionado y trágico romance entre la reina Dido de Cartago y el héroe troyano Eneas, quien se ve obligado a abandonarla para cumplir su destino: fundar Roma.

Es una joya del Barroco que logra, con muy pocos recursos, retratar la vulnerabilidad humana de una forma que sigue sintiéndose actual.

27

**AZAROA/NOVIEMBRE**  
(OSTIRALA/VIERNES)

**19:00**

**ELEBIDUNA / BILINGÜE**  
75 min  
12 € (Bazkideak 9 €)



# DISPHORIA

## Histrion Teatro

 [www.histrionteatro.es](http://www.histrionteatro.es)  
 @histrionteatro

Dramaturgia eta zuzendaritza / Dramaturgia y dirección:

**Maria Goiricelaya**

Aktoresa / Actriz:

**Gema Matarranz**

Zuzendari Laguntzailea / Ayudante de dirección:

**Ane Pikaza**

***DISFORIA: euforiaren kontrako aldartea; ondoezak, atsekabeak, urduritasunak edo tristurak ezaugarritzen duten egoera.***

***DISFORIA: estado de ánimo opuesto a la euforia, caracterizado por sentimientos de malestar, insatisfacción, inquietud o tristeza.***

Ezusteak erabat astindu du gure protagonista. Hamasei urteko alabak mutila dela aitortu berri dio. Aurrerantzean ez da gehiago Alejandra izango; benetan dena izango da, Alex.

Terapia, sentsibilizazio taldeak... ezer ez da nahikoa onartzeko bere alaba ez dela gehiago bere alaba izango, eta aldaketaren astindutik ukapena, erresistentzia eta frustrazioan murgiltzekotan denean, dena hankaz gora jarriko da polizia etxera iristen denean, Alexi sexu-abusuak egotzita. Ustekabeko gertakari honek gure protagonista lasterketa ero batean murgilduko du, bere semea ulertu eta babestu nahian baztertu, suntsitu eta pertsona gisa dituen identitatea eta eskubideak lapurtu nahi dizkiotenen aurrean.

Ella está en shock. Su hija de dieciséis años acaba de confesarle que no es una chica; sino que es un chico. Ya no será más Alejandra, será quien realmente es, Alex.

La terapia, los grupos de sensibilización, nada es suficiente para aceptar el hecho de que su hija ya no será más su hija y la negación, la resistencia y la frustración se abren paso desde el dolor que provoca el cambio.

Sin embargo, todo gira cuando la policía llega a casa acusando a Alex de abuso sexual. Este hecho inesperado empuja a nuestra protagonista a emprender una frenética carrera para intentar comprender a su hijo y protegerle frente a todo aquello que quiere arrinconarle, destruirle y robarle su identidad y sus derechos como ser humano.

29


AZAROA/NOVIEMBRE  
(IGANDEA/DOMINGO)

19:00

CASTELLANO

70 min

12 € (Bazkideak 9 €)



# GABRIEL ARESTI MUG(H)ARRI

Joxan Goikoetxea & Euskamerata

Idea, gidoia, zuzendaritza eta musika / Idea, guion,  
dirección y música:

**Joxan Goikoetxea**

Ahotsa / Voz:

**Beñat Egiarte**

Ahotsa / Voz:

**Amaia Azkue**

Biola / Viola:

**Xabier de Felipe**

Errezitatuak / Recitados:

**Xabi Paya**

Joxan Goikoetxearen eskutik, **Gabriel Aresti Mug(H)arri**, Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Gabriel Aresti Katedrak sustatutako sorkuntza eszenikoa, poeta bilbotarraren heriotzaren berrogeita hamargarren urteurrena ospatzeko.

Elkarrekin musikaren, hitzaren eta kulturaren arteko harremana sarritan uztartu izan duten **EusKamerata**ko kideak lagun dituela, Arestiren figura oinarri duen ibilbide sentikor eta intelektuala proposatuko digu Goikoetxeak lan honekin. Soinuzko sorkuntzaren eta hitz poetikoen arteko elkarriketa garaikidearen bitartez, Gabrielen pentsamendua, estetika eta iruditeria ideologikoa biziberritzeko gonbita egingo digu.

Joxan Goikoetxea presenta **Gabriel Aresti Mug(H)arri**, una creación escénica promovida por Euskaltzaindia y la Cátedra Gabriel Aresti de la Universidad del País Vasco (EHU), en conmemoración del cincuentenario del fallecimiento del poeta bilbaíno.

Acompañado por los integrantes de su **EusKamerata**, con la que ha explorado en numerosas ocasiones la relación entre música, palabra y cultura, Goikoetxea propone en esta obra un recorrido sensible e intelectual por la figura de Aresti. La pieza invita a revivir su pensamiento, su estética y su imaginario ideológico a través de un diálogo contemporáneo entre la creación sonora y la palabra poética.


**5** **ABENDUA/DICIEMBRE**  
(LARUNBATA/ SÁBADO)

**18:00**

**EUSKARA**

75 min

6 € (Bazkideak 4,50 €)



# SZENATOKIA

## Durangoko Azoka

*SZENATOKIAN parte  
hartzeko izena ematea  
Irailaren 14tik aurrera  
Durangoko Azokako web  
gunearen bidez*

🌐 [durangokoazoka.eus](http://durangokoazoka.eus)  
✂ [@durangokoazoka](https://twitter.com/durangokoazoka)  
📷 [@durangoko\\_azoka](https://www.instagram.com/durangoko_azoka)  
📘 [/DurangokoAzoka](https://www.facebook.com/DurangokoAzoka)



**61. edizioa**

Durangoko azokan zehar San Agustin Kultur Gunea **Szenatokia** bilakatzen da, alegia, **arte eszenikoen azokako plaza**. Hala, egun horietan zehar euskarazko arte eszenikoen arloan, edozein disziplinatako pieza laburrak erakutsiko dira (antzerkia, dantza, zirkoa, magia, performance, bakarriketa...).

Emanaldi jarraiak izango dira egun osoan zehar. Sarrera doan izango da eta ez da aldeztu aurretik lekurik gorde beharko.

Aurtengo egitarau zehatza azarotik aurrera kontsultatu dezakezu Durangoko Azokako web gunearen Szenatokia atalean.

Durante la Durangoko Azoka, San Agustin Kultur Gunea se convierte en **Szenatokia**, la plaza de las Artes Escénicas de la Azoka. Así, a lo largo de estos días, se mostrarán piezas cortas de cualquier disciplina de las artes escénicas, (teatro, danza, circo, magia, performance, monólogo...).

Las actuaciones se programarán de manera ininterrumpida durante todo el día. El acceso es gratuito y sin entrada.

Puedes consultar el programa concreto a partir de noviembre en el apartado Szenatokia de la web de Durangoko Azoka.

# 6-8

ABENDUA/DICIEMBRE

EGUN OSOAN ZEHAR  
EMANALDI JARRIAK

EUSKARAZ

MIKRO - PIEZAK

DOAN / GRATUITO

SZENATOKIA  
ARTE ESZENIKOEN PLAZA



# SIDARI

## Xake Produksioak

 [www.histrionteatro.es](http://www.histrionteatro.es)  
 [@histrionteatro](https://www.instagram.com/histrionteatro)

Egilea / Autoría:

**Kepa Errasti**

Antzezleak / Intérpretes:

**Getari Etxegarai, Kepa Errasti, Iholdi Beristain,  
Hodei Arrastoa**

Zuzendaria / Dirección:

**Getari Etxegarai**

### *Zenbat irauten du maitasunak? ¿Cuánto dura el amor?*

Badakigu orainak etorkizuna alda dezakeela, baina etorkizunak oraina aldatzerik balu? Hogeita hamar urte inguruko bikote gazte baten istorioa da honako hau. Jone eta Jokinek Interrail bidaia egitea erabaki dute Europan zehar euren zortzigarren urteurrena ospatzeko.

Trenera igotzearekin batera, adineko bikote oso berezi batekin topo egingo dute. Hauek ere ez daukate helmuga zehatzik, baina gomendio bat egingo diete; Corfu irlako **SIDARI** herrian dagoen kanal zoragarri bat bisitatzea eta kanal hura igerian gurutzatzea. Hori egiten duten bikoteek bizitza guztirako maitasuna eskaintzen omen diote elkarri.

Bidaiaiko momentu ezberdinetan adineko bikote horrekin topo egin ahala, Jone modu logiko eta arrazional batean ulertzeko oso zaila den zerbait susmatzen hasiko da; eta bikote arraro hori beraiek balira lau hamarkada geroago?

Sabemos que el presente puede cambiar el futuro, pero ¿podría el futuro cambiar el presente? Esta es la historia de una joven pareja de unos treinta años. Jone y Jokin han decidido hacer un viaje de Interrail por Europa para celebrar su octavo aniversario.

Nada más subir al tren, se encontrarán con una peculiar pareja de ancianos. Ellos tampoco tienen un destino definido, pero les harán una recomendación: visitar un maravilloso canal situado en **SIDARI**, en la isla de Corfú, y cruzarlo nadando. Cuenta la leyenda que las parejas que lo hacen se prometen un amor para toda la vida.

A medida que se vayan encontrando con esa pareja de ancianos en distintos momentos del viaje, Jone empezará a sospechar algo muy difícil de comprender desde una perspectiva lógica y racional: ¿y si esa extraña pareja fueran ellos mismos cuarenta años después?

12

ABENDUA/DICIEMBRE  
(LARUNBATA /SÁBADO)

19:00

EUSKARAZ

75 min

10 € (Bazkideak 7,5 €)



# JUDITH JAUREGUI & ANA MARIA VALDERRAMA

## El instante y lo eterno (Dúo Piano-Violín)

*Bartolomé Ertzillak  
antolatutako XXXVII  
Musika hamabostaldia*

*XXXVII Quicena musical  
organizada por la Escuela  
de Música Bartolomé Ertzilla*

Pianoa / Piano  
Judith Jáuregui  
Biolina / Violín  
Ana María Valderrama

Judith Jáuregui pianistak eta Ana María Valderrama biolinistak lehen aldiz bat egingo dute agertokian, unean uneko emozioaren eta musikaren iraunkortasunaren artean bidaiazera gonbidatzen duen errezitaldia eskaintzeko.

Emanaldia **Arvo Pärt**en *Fratres* lanarekin hasiko da, hausnarketarako eta baitaratzeko gunea proposatzen duen espiritualtasun sakoneko piezarekin, alegia. Hasierako atmosfera horretatik abiatuta, kontzertuan biolin eta pianorako erreperatorioko obra ezagun batzuk eskainiko dituzte, hala nola **Karol Szymanowski**ren Sonata eta **Gabriel Fauré**ren Lehen Sonata, adierazkortasun handiko eta edertasun finduko bi lan.

Horrez gain, **Clara Schumann**ek idatzitako *Hiru Erromantzak* konposizioaren begirada intimo eta poetikoa eskainiko digute, eta, hala sentibiltatez, lirismoz eta adierazkortasunez, musikaren edertasun ateporlari omenaldi bat egingo diote.

La pianista **Judith Jáuregui** y la violinista **Ana María Valderrama** se reúnen por primera vez sobre el escenario para ofrecer un recital que invita a transitar entre la emoción del instante y la permanencia de la gran música.

El programa se abre con *Fratres*, de **Arvo Pärt**, una obra de profunda espiritualidad que propone un espacio de contemplación y recogimiento. A partir de esta atmósfera inicial, el concierto despliega un recorrido por algunas de las páginas más inspiradas del repertorio para violín y piano, con la Sonata de **Karol Szymanowski** y la Primera Sonata de **Gabriel Fauré**, dos obras de intensa expresividad y refinada belleza.

Entre ambas, las *Tres Romanzas* de **Clara Schumann** aportan una mirada íntima y poética, completando un programa en el que sensibilidad, lirismo y fuerza expresiva convergen en un homenaje a la belleza atemporal de la música.

13

**ABENDUA/DICIEMBRE**  
(IGANDEA /DOMINGO)

**19:00**

60 min  
10 € (7,50€  
Bazkideentzat eta  
Bartolome Ertzillako  
ikasleentzat / para  
socios/as y alumnado  
de Bartolomé Ertzilla)



# MALUTA XII

## Gabonetako Zirku Gala Gala de Circo de Navidad

🌐 GANSO & CÍA: [www.ganso.info](http://www.ganso.info)  
DUO 1UNO @duo1uno  
ILARIA ORSETTI @ilariaorsetti  
CÍA SEÓN @cia.seon  
FRANCISCO SIMÕES @francisco.simo.es.wm

Galako anfitriok / Anfitriones de la gala:

**GANSO & CÍA**

Artista gonbidatuak / Artistas invitados/as:

**DUO 1UNO** (Chile-Madrid)

**ILARIA ORSETTI** (Italia)

**MARIA SALMERON** (Andalucía)

**CÍA SEÓN** (Aragón)

**FRANCISCO SIMÕES** (Portugal)

Urtero bezala, gabonetan antzokia...  
zirkuko karpa bihurtzen da!!

**Maluta** munduko hainbat lekutatik iritsita funtzio eskusibo eta errepikaezina betetzen duten zirkuko artisten konbinazio bat da. Ezinezko trebetasunen, birtuosismoaren eta poesiaren erakustaldi laburrak. GANSO&Cía kuzendu eta aurkeztutako publiko GUZTIARENZAKO ikuskizuna, dena barrez, xelebrekeriaz eta ezustekoren batez ziprztinduz.

Eszenatokian, sarerik gabe, lehoirik gabe, baina talentuz gainezka: **DUO 1UNO** (Chile-Madril), **ILARIA ORSETTI** (Italia), **MARÍA SALMERÓN** (Andaluzia), **CIA SEÓN** (Aragoi) eta **FRANCISCO SIMÕES** (Portugal).

Como cada año, en navidades el teatro se transforma en... ¡¡carpa de circo!!

**Maluta** es una combinación de artistas circenses que llegados desde distintos lugares del mundo vienen a realizar una función exclusiva e irrepetible. Breves demostraciones de habilidades imposibles, virtuosismo y poesía. Un espectáculo para TODOS los públicos dirigido y presentado por **GANSO&Cía** que salpicará todo de risa, excentricidad y alguna que otra sorpresa.

Sobre el escenario, sin red, sin leones, pero rebosantes de talento: **DUO 1UNO** (Chile-Madrid), **ILARIA ORSETTI** (Italia), **MARÍA SALMERÓN** (Andalucía), **CIA SEÓN** (Aragón) y **FRANCISCO SIMÕES** (Portugal).

**27 19:00**

**28 19:00**

**29 12:30  
19:00**

**ABENDUA  
DICIEMBRE**

Testu barik / Sin texto  
70 min

Helduak / Adultos 8 €

Bazkideak / Socios/as 6 €

18 urtetik behera /

Menores de 18 años 4 €

Txikitxartela 3 €



# sarrerak salgai

Irailaren 1an,  
goizeko 10:00etatik aurrera

# entradas a la venta

a partir del 1 de septiembre  
a las 10:00

## sarrerak / entradas

- **San Agustin Kultur Gunea**

Emanaldiak baino ordu bete lehenago / 1 hora antes de cada función

- **Arte eta Historia Musea (94 603 00 20)**

Asteartetik ostiralera / De martes a viernes

10:00 – 13:00

17:00 – 20:00

Larunbata / Sábado

11:00 – 14:00

17:00 – 20:00

Igandea / Domingo

11:00 – 14:00

- **Kutxabanken bidez / Servicios Kutxabank**

[www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es)

(Kutxabank-ek komisioa kobratzen du erositako sarrera bakoitzagatik)

(Estos servicios Kutxabank cobran comisión por entrada)







*zatoz antzokira!*



San Agustin  
KULTUR  
GUNEA  
DURANGOKO UDALA



 durango

  
**Bizkaia**  
fora arautua  
diputación foral

  
**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
HEGOKIA 100  
DEPARTAMENTU DE LA TIERRA

 **SARE4**  
ASOCIACIÓN  
DE TEATROS  
DE LA CARRERA  
DE LA CARRERA  
DE TEATROS



94 603 00 21



@San\_agustin\_kg



@sanagustinkgdurango



sanagustin@durango.eus